

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ARROPAK MOLDATZEA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF1032		
Lanbide-arloa	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA		
Lanbide-eremua	Ehun- eta larru-jantzigintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Arropak moldatzea eta pertsonalizatzea	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarritzko teknikak (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Arropak pertsonalizatzea		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1227_1 MOLDAKETAK EGITEA ETA ARROPAK PERTSONALIZATZEA gaitasun-ataleko LB1, LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin eta, partzialki, LB6 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, arropen moldaketako desmuntatze-, mozte-, mihiztatze- eta akabera-eragiketen espezifikotasunei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ehun eta larruzko arropak moldatzeko prozesua ezartzea, egituraren, estetikaren, kalitatearen eta osteko erabilaren arabera.

EI1.1 Ehun eta larruzko arropen fabrikazioan aplikatzen den muntatze- edo jantzigintza-prozesua xehatzea, hala nola jostura-mota, puntada-mota eta -luzera, errefortzuak, etab.

EI1.2 Arropak moldatzeko kasu praktiko batean oinarrituz, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Muntaketa-prozesuaren segidak ezartzea.
- Erabilera zehatzea, baita xede duen populazio-segmentua ere.
- Arropei aplikatu beharreko alderdi hauek deskribatzea: egiturazkoak, estetikoak, kalitatezkoak eta funtzionalak.
- Moldaketak eragindako arroparen barruko eta kanpoko osagaiak zehatzea.
- Kasu bakoitzean aplikatutako jantzigintza-prozesua ezagutzea.

A2: Ehun edo larruzko arroparen josturak desegiteko edo arropa desmuntatzeko teknikak aplikatzea, erreminta egokiak erabiliz, eskatutako moldaketa edo transformazioaren arabera.

BI2.1 Arropa desmuntatzeko behar diren erremintak zehatzea, egin beharreko eragiketen arabera, hala nola moztea, josturak desegitea, errematxeak kentzea, etab.

EI2.2 Osorik edo partzialki desmuntatzeko eragiketak azaltzea, ordena baten eta egin nahi den moldaketa-motaren arabera.

EI2.3 Arroparen josturak osorik edo partzialki desegiteko edo arropa osorik edo partzialki desmuntatzeko teknikak identifikatzea, eta azaltzea arropetan kalterik ez egiteko hartzen diren neurriak eta jatorrizko mihiztaduraren arrastoak saihesteko irtenbideak.

EI2.4 Arropa edo moda-osagarri bat transformatzeko osorik edo partzialki desmuntatzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Desmuntatzeko jarduerak ordenatzea, jasotako informazioaren arabera.
- Egingo den transformazio-mota identifikatzea.
- Probako markak egokiak direla egiaztatzea.
- Desmuntaketa eta eragiketen segida ezagutzea.
- Erabili beharreko baliabideak hautatzea.
- Behar diren desmuntatze-eragiketak trebetasunez egitea, teknika egokiak aplikatuz.
- Jatorrizko mihiztaduraren markak ezabatzea, teknika egokiak aplikatuz.
- Desmuntaketaren kalitatea egiaztatzea.

A3: Pertsonaren gainean arropa probatzen laguntzea, zehaztutako arretarekin, arropa doitzeko eta aurreikusitako moldaketari irtenbide bat ematen laguntzeko.

EI3.1 Pertsonaren gainean arropa nola jarri behar den azaltzea, eta modu eta toki zehatzean jarri dela egiaztatzea.

EI3.2 Pertsona edo maniki estatiko baten gainean arropa nola jarri behar den azaltzea, eta toki zehatzean jarri dela egiaztatzea.

EI3.3 Hala badagokio, proba egin aurretik desmuntatu beharreko arropa-zatiak zehatzea, egin nahi den moldaketa-motaren arabera.

EI3.4 Arropa pertsonaren gainean probatu eta moldatzeko behar diren erreminta eta lanabesak identifikatzea.

EI3.5 Arropa pertsonari egokitzeko eman beharreko pausuak azaltzea, eskatutako transformazioaren eta prozedura errazteko egiten diren behin-behineko marka-moten arabera.

EI3.6 Proba amaitu ondoren pertsona erantzeko kontuan hartu beharreko alderdiak zehaztea, bereziki, egindako markak ez desegitearekin zerikusia dutenak.

EI3.7 Arropa probatzeko kasu praktiko batean oinarrituz, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala, bezeroaren gainean doitzen eta egokitzen laguntzea:

- Proba egiteko jarduerak ordenatzea, jasotako informazioaren arabera.
- Proposatutako transformazio-mota eta eragiketen segida ezagutzea.
- Erabili beharreko baliabide eta materialak hautatzea eta prestatzea.
- Hala badagokio, arropa-zati batzuk trebetasunez desmuntatzea, arropa pertsonaren gainean errazago doitzeko.
- Arropa pertsonaren gainean jartzea.
- Arropa doitzen eta moldatzen laguntzea, eskatutako transformazioaren arabera.
- Doikuntzaren emaitza arroparen gainean markatzea.
- Arretaz erantztea, proban egindako seinaleak desegin gabe.

A4: Arropa moldatu edo transformatzeko mihizatze-teknikak aplikatzea, eskatutako emaitza lortzeko, estetikari kasu eginez.

EI4.1 Jatorrizko arropen moldaketetan txerta daitezkeen materialak identifikatzea, haren estetika mantentzeko edo modako joeren araberako aldaketak egiteko.

EI4.2 Eskatutako moldaketa egiteko txertatu behar diren zati edo elementu berriak hautatzea, eta, hala badagokio, trebetasunez moztea, ordezkatu beharreko zatietan oinarrituz lortutako txantiloak erabiliz.

EI4.3 Eskatutako transformazioa lortzeko osagaiak lotzeko aplikatu beharreko mihizatze-teknikak—eskuzkoak nahiz makinazkoak—azaltzea.

EI4.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean oinarrituz, arropa bat osorik edo partzialki mihizatzea, transformatzeko, estetikari kasu eginez:

- Mihizatze jarduerak ordenatzea, jasotako informazioaren arabera.
- Erabili beharreko baliabide eta materialak aukeratzea.
- Egin beharreko transformazioaren arabera aplikatu beharreko mihizatze-mota ezagutzea.
- Probaren markak desegin ez direla egiaztatzea.
- Behar diren lanabes, erreminta eta makinak prestatzea.
- Eskuz eta makinaz mihizatze eragiketak egitea, teknika egokiak aplikatuz.
- Jatorrizko mihiztaduraren markak ezabatzea, teknika egokiak aplikatuz.
- Mihiztaduraren kalitatea eta kalterik eza egiaztatzea.

A5: Arropen akabera egiteko teknika espezifikoak aplikatzea, eskatutako moldaketa zuzen egin dela egiaztatu ondoren.

EI5.1 Moldatutako arropen aplikatzen diren akabera-teknikak ezagutzea, hala nola eskulatzeta, leunketa, lisatzea eta abar, material-motaren, osagarrien eta gainerako elementuen arabera.

EI5.2 Arropak jatorrizko ezaugarriak izaten jarrai dezan aplikatu beharreko akabera-eragiketak egiaztatzea.

EI5.3 Kasu bakoitzean akabera-teknika egokiena aplikatzea, trebetasunez, segurtasun- eta osasun-neurriak betez eta eskatutako ezaugarriei kasu eginez.

EI5.4 Lisatze-prozesuan arropak lisatzeko mahai gainean nola jarri behar diren azaltzea, baita kontrolatu beharreko parametroak eta bete beharreko segurtasun- eta osasun-neurriak ere.

EI5.5 Arroparen moldaketa eta akabera zuzen egin direla egiaztatze egin beharreko berrikuste-eragiketak zehaztea.

EI5.6 Itxuraldatutako arropak identifikatu eta babesteko prestatzeko moduak zehaztea.

EI5.7 Itxuraldatutako arropa baten akabera lisatze bidez egiteko kasu praktiko batean oinarrituz, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Akabera egiteko jarduerak ordenatzea, jasotako informazioaren arabera.
- Eragiketen prozesua eta segida ezagutzea.
- Erabili beharreko baliabide eta materialak identifikatzea.
- Behar diren lanabes, erreminta eta makinak prestatzea.
- Lisatze-parametroak kontrolatzea: tenperatura, presioa eta abar.
- Arropa lisatzeko mahai jartzea.
- Egiaztatzea ez dagoela tentsiorik, azaleko erlieberik, dirdirarik, tolesik ez deformaziorik.
- Arropa trebetasunez lisatzea.
- Jatorrizko mihiztaduraren markak badaude, teknika egokiak aplikatzea.
- Akaberaren kalitatea egiaztatzea.

EI5.8 Arropak bezeroari entregatzeko berrikusi eta prestatzeko kasu praktiko batean oinarrituz, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Arroparen moldaketa eta bezeroak eskatutakoa bat datozela egiaztatzea.
- Berrikustea eta, hala badagokio, detektatutako anomaliak zuzentzea.
- Arropa bezeroari entregatzeko prestatzea modu egokian, tipologiaren arabera.

Edukiak

1. Ehun eta larruzko arropa eta moda-osagarrien azterketa.

- o Hainbat arropa eta osagarriren egitura.

- Hainbat arroparen erosotasun eta kalitatearen identifikazioa, aplikazio edo erabileraren arabera.
 - Arropen osagaiak: txantiloak edo patroiak.
2. **Arropak probatzea, moldaketa pertsonalizatua egiteko.**
- Erreferentziazko puntu anatomikoak.
 - Neurriak eta proportzioak.
 - Arroparen kokapena, pertsonaren edo maniki estatikoaren arabera.
 - Arropak pertsonalizatzeko joerak eta arropa moldatzea.
 - Irtenbide teknikoak.
 - Erremintak eta lanabesak.
3. **Ehun eta larruzko arropa eta osagarriak moldatzean jantzigintza-prozesua aplikatzea.**
- Josturak desegiteko teknikak.
 - Arropak eta materialak prestatzea.
 - Hainbat material mozteko eragiketak.
 - Mihizatze-eragiketak: jostea, itsastea eta abar.
 - Arropen tarteko eta amaierako akaberak egiteko eragiketak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestakuntza-atal hau egiteko, gainditua izan behar du UF1030 Ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarritzko teknikak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak